



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Azpeitia

Uraren eta energiaren sekretuak

Lehen Hezkuntza (Hirugarren Zikloa)

ARLO/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza.

LOTUTAKO ARLO/IKASGAIAK: Balio zibiko eta etikoaren heziketa.

Ikas-esperientzia honetan, ikasleek uraren eta energiaren garrantzia aztertuko dute, bizitzarako eta giza garapenerako funtsezko baliabideak direla ulertuz. Uraren zikloa, ibilbidea eta erabilera landuko dituzte, eguneroko jardueretan duen zeregina ulertzeko. Era berean, energiaren jatorria aztertu eta iraganeko eta egungo kontsumo-ohiturak alderatuko dituzte, ingurumenean duten eragina baloratzuz.

Ikasitako guztiaren laburpen gisa, XVIII. mendeko ur-erota bat bisitatzeak aukera emango die ura, bere ibilbide naturalari jarraituz, artoa ehotzeko energia nola bihurtzen zen ikusteko, uraren, energiaren eta baliabideen aprobetxamendu iraunkorraren arteko zuzeneko lotura ulertuz.